



◆ ERREMONTA - Binakako Txapelketako Finala

Barrenetxea IVa, txapelaren bila

Endika Barrenetxea hernaniarrak Binakako Txapelketa Nagusiko finala jokatuko gaur Galarretan, Urriza lagun duela eta Ezkurraren kontra.

BINAKAKO txapel handia irabazi dezake gaur Endika Barrenetxea hernaniarrak. Urriza lagun duela, Ezkurra eta Olazarren kontra jokatuko dute finala Galarretan, 16:00etan hasiko den jaialdian (finalekoa bigarren partidua). Lehendik ere hiru barrenetxeatar jokatutako dira Ezkurraren kontra, eta Endika gaztea amorratzen dago, bere «betiko ametsa» betetzeko. Kronikak berarekin hitz egin du, ze gorpuzalditan dagoen jakiteko asmotan. /6

◆ IGERIKETA

Igerilari on asko lehiatuko dira gaur Hernanin

Hernaniko Sariketa jokatuko da gaur kiroldegiko igerilekuan, eta 180 igerilari inguru bilduko dira bertan; maila oso onekoak batzuk. Goizeko 09:30etatik aurrera, Hernaniko kiroldegian. /7

◆ MUSIKA

Ozenki eta Musika Banda gaur Gabon kontzertuan

Bi kontzertu izango dira asteburuan Hernanin, Gabonak direla eta. Gaur, Ozenki abesbatza eta Musika Banda ariko dira Milagrosan, 19:30etan. Bihar, Txistulari Banda ariko da, 13:00ean, Udaletxeko Arkupeetan. /3

◆ FUTBOLA

Realeko nesken taldea gaur Zubipen

Entrenamendu goi mailakoa ikusiko dute gaur Zubipera inguratzen direnek. Izan ere Realeko nesken lehenengo taldeak bertan entrenatuko du. Partidilloa egingo dute, 10:00etatik aurrera. /7

GAUR KRONIKAN

Laburrak: Txoko Feminista, Portu auzoa, Goiz Eguzki... /2

Eskelak /7

Ostalaritza: Euskera klaseak ostalaritzan lan egiteko /8

Zinea: Iñaki Ochoa de Olza mendizaleari buruzko pelikula gaur eta bihar /8



Marihuana normalizatzeko pausoak ematen, Hernanin

TALDE berria sortu dute Hernanin, cannabisa edo marihuanaren kontsumoa normalizatzeko. Herbnani taldeak nahi du, Cannabis erabiltzaileak merkatu beltzetik atera eta daukan balioa erakutsi, terapeutikoki, adibidez. «Apologiari ez dugu egiten, erregulatzea eskatzen dugu», diote, 25 bazkide dituen talde berri honetako kideek. /2

ITXASPE
Arrandegia

Antziola 5 - Tel.: 943 330 365 - Mob.: 653 741 097

Adarraga
HERNANI (Goztoa)

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

DORRONSORO

OKINDEGIA

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:
⇒ **Lizeaga 4an.**
Ogia eta bolleña aukeran.
Ordutegia 07:15-14:00/17:00-21:00

⇒ **Akarregi poligonoan.** obradore nagusia, denda eta kafetegia.
Ordutegia: 05:30-13:30/18:00-19:30

HERBNANI ELKARTEA

'Herbnani' elkarteak lanean, cannabis kontsumoa normalizatzeko

Herbnani elkarteak aurkeztu zuten joan den ostiralean (abenduak 14). Hernaniko cannabis erabiltzaileen elkarteak da. EUSFAC federazioaren barruan dago eta marihuanaren kontsumoa erregulatzearen

alde egingo du lan, «erabiltzaileak merkatu beltzetik ateratzeko». Batzorde Terapeutikoa ere badu. Bazkide bidez funtzionatuko du eta egun, 25 bazkide ditu, «gehienak adinekoak».

HERBNANI elkarteak, ikerketa esperimentalen eta cannabis erabiltzaileen Hernaniko elkarteak da. Urtebetez gestio lanetan eta dokumentazio lanetan aritu ondoren, abuztuaren 20an sortu zen elkarte bezala eta abenduaren 14an aurkeztu zuten Akarregi poligonoan daukan lokalean (Akarregi poligonoan, 10 zenbakian, rotunda parean).

Herbnani, irabazi asmorik gabeko elkarteak da, bazkide bidez funtzionatuko du, eta asmoa du merkatu beltzetik ateratzeko marihuana kontsumitu nahi duten pertsonak. «Saltzen dena, lapurtua denez, kalitate txarrekoa da, prezio abusiboak jartzen dira... Horrez gain, jendearen informazioa eman nahi dugu. Ez da ilegala, baina askok ez dakite zenbat kontsumitu dezakegun, zenbat landatu dezakegun... Multen aurrean nola jokatu behar den ere azalduko dugu. Jendeak ez daki errekurtsioak jartzeko aukera dagoenik. Horrez gain, kontsumo arduratsuari buruzko informazioa emango dugu, tailerrak...», azaldu dio Hugo Sá elkartearen presidenteak Kronikari

«Ez dugu apologiari eskatzen dugun erregulazioa eskatzen dugun»

Herbnaniko kideek argi diote euren asmoa ez dela inongo apologiari egitea, «ezta ere erre behar den edo ez esatea. Baina kontsumitzaile garen heinean eta legala den heinean, egoera erregulatu nahi dugu eta jendea informatu nahi dugu. Normalizazioa eskatzen dugu, estatutuak erregulatu dezala. Jendearen beharra da».

Erabilera terapeutikoari buruzko informazioa

Batzorde terapeutikoa ere badu elkarteak; Kike Parras da Batzordeko presidentea. Izan ere, Herbnanin, erabilera terapeutikoei buruzko informazioa ere emango dute eta saioak ere egingo di-



Hugo Sá presidentea, Kike Parras bokala eta Batzar Terapeutikoko presidentea, eta Alberto Bravo diruzaina.

«Erromatarrek bere garaian erabiltzen zuten baliabide terapeutikoa bezala, eta baita lehenago ere».

tuzte bazkideen artean. Cannabisak eskaintzen dituen erremedio terapeutikoak honakoak dira: tinturak, erromero-alkohola, baporizadoreak, kremak, olioak... Minak arintzeko egokiak direla dio Kike Parrasek. «Tintura, esaterako, 5 tanta edo hartzen dituzu; alde sekulakoa da. Kremak, berriz, ume baten ipurdia bezain leun uzten dute azala».

Ez zaie interesatzen legalizazioa

Hain ona bada, zergatik saltzen da oso txarra izango balitz bezala? Parrasek argi dauka: «Ez zaielako interesatzen legalizazioa. Erromatarrek bere garaian erabiltzen zuten baliabide terapeutikoa bezala eta baita lehenago ere. Baina debekua Ipar ame-

riketatik dator, ez zitzaileako komeni merkatu hori, beste interes batzuk baitzizutzen. Eta gainerako herrialde askok debeku horretan oinarrituta jokatu dute. Gainera, debekatu zuten debekatu nahi zutelako, ez azterketa edo datuetan oinarrituta».

Bazkideek, 21 urtetik gora

Elkarteak bazkide bidez funtzionatuko du eta bazkideek honako ezaugarriak izango dituzte, besteak beste: 21 urtetik gorakoak izango dira, cannabis kontsumitzaileak izan behar dute, fakultate mentalak ondo eduki behar dituzte eta estatutuaren zehazten den araudia bete behar dute.

Bazkideek kuota bat ordainduko dute eta diru iturri horrekin egingo dituzte elkartearen ekintzak. Elkartearen asanblearioa izango da.

Herbnani, EUSFACen (Euskal Herriko Cannabis erabiltzaileen elkartearen federazioa) barruan dago.

Kontsumoa, kontrolatua

Herbnanik gehienek, 300-400 bazkide izan ditzake. Oraingoan 25 bazkide dira eta gehienbat adinekoak direla

diote. Bazkide berriak, batez ere, bazkideek beraiek sartuak izango dira. Norbaitek bazkide egin nahiko balu, aukera izango luke baldintzak eta arauak betez gero, eta zuzendaritzak onartuz gero. Neurri horiek kontuan izango dituzte, kontsumoa kontrolatua izateko. «Hemen produzituko dena bazkideen kontsumorako izango da eta hirugarrenak tartean ez sartzeko edo salmentarako aukerarik ez sortzeko, bazkide bakoitzak aurretik esan behar du zenbat kontsumitzaile aurreikusten duen. Horren arabera, kultibatuko da. Araudiak dio pertsona batek egunean 2g inguru kontsumitu ditzakeela. Orduan, astean 15g izan daitezke», diote.

2013an zehar, ekintza ezberdinak

Hastear den urte berriari begira, hainbat ekintza antolatuko asmoa dute: hitzaldiak, San Canuto eguna, San Joanetan kata bereziren bat, hilabetero katak, tailerrak erremedio terapeutikoen inguruan: crema tailerra, tintura tailerra, erromero-alkohola egiteko tailerra... ||

TXOKO FEMINISTA

Izen-ematea zabalik, autodefentsa tailerrerako

Datorren larunbatean, abenduak 29, tailer berezia antolatu du Txoko Feministak: autodefentsa tailerra. Goiz osoan emango dute tailerra, 09:45etatik 14:00etara, eta dagoeneko zabalik dago izen-emateko epea. Helbide honetan: hernaniko-txokofeminista@gmail.com. ||

AEK

Mariskada eta Korrika18-ko erropak salgai, astelehenean

AEK euskaltegiak postua jarriko du abenduaren 24an, Gudarien plazan. Urtero bezala, mariskada eder bat zozketatuko dute, eta Korrikako materiala erosteko aukera ere izango da: 11:30etatik 14:00etara, eta 18:00etatik aurrera. ||

Korrika laguntzaile egin 12 euroren truke

Korrikari laguntza emateko, eta hainbat dendatan beherapenak izateko, 12 euro jartzea nahiko izango da. AEK euskaltegiaren aldeko ekimena da eta edozein euskaltegitara hurbilduta egin liteke laguntzaile. ||

GIBELALDE

Olentzero panpinen lehiaketa bihar, Lizeagan

Lizeaga auzoan Olentzero lehiaketa egingo dute bihar. Sormen edo kreatibitatea baloratuko da eta berziklatutako materialak erabiltzea. 10:00etatik 11:00etara lanak entregatuko dira eta 11:00etatik 13:00era erakusketan jarriko dira. Ondoren, sariak. Larramendi 11ko lokaletan. ||

PORTU AUZOA

Txistorrada, bihar

Portu auzoan txistorrada egingo dute bihar, 12:00etatik aurrera, Ibarrolaburu plazan. Horrez gain, Gabonetako Saskia ere zozketatuko da txistorrada bukatuta. ||

GOIZ EGUZKI

Bailea eta ordutegi berezia, Eguberrietan

Goiz Eguzki jubilatu etxean Eguberriak ondo ospatzen dituzte, eta bailea izango da abenduaren 25etan eta urtarrilaren 1ean. Bi egun horietan 17:30etan irekiko dute jubilatu etxea. Abenduaren 24an eta 31n 15:00etan ireki eta 18:30etan itxiko dute. ||

GABONETAKO KONTZERTUAK ASTEBURUAN

Belarriak gozatzeko, bi kontzertu eder

Asteburu honetan Gabonetako bi kontzertu entzuteko aukera izango da. Gaurkoan, Ozenki abesbatzak eta Musika Bandak elkarrekin emango dute lehenengoa, 19:30etan Milagrosan. Bihar berriz, Txistulari Bandak joko du, 13:00ean.

GABONEN bueltan antolatutako bi kontzertu izango dira asteburu honetan. Lehenengoa gaur izango da: Ozenki abesbatzak eta Hernaniko Musika Bandak 14 kantu interpretatuko dituzte. Bihar berriz, Txistulari Bandak, akordeoilari baten laguntzarekin, beste 8 joko ditu.

14 doinu gozo

Gaur arratsaldeko 19:30etatik aurrera, Ozenki abesbatzaren eta Hernaniko Musika Bandaren emanaldia izango da, Milagrosan. Bi taldeek elkarlanean, 14 bat abesti interpretatuko dituzte, Imanol Kamio eta Zipri Otxandorenaren zuzendaritzapean.

Garai honi dagokionari jarraituta, Gabon doinuak izango dira guztiak. Horietako batzuk, Gabonetako euskal doinu ezagunak izango dira, adibidez, Guridiren *Hator, hator*, edota Ansorenaren *Entzun Meltxor*.

Beste batzuk berriz, munduko beste txoko batzuetan ezagunagoak dira. Horien artean, Leontovich-en *Carol of the bells*, Ty Watson-en *The little drummer boy*, edota Norman Tailor-en *Gospel Train*.

Gabonetako doinuak izango dira denak, eta publikoak



Joan den urteko kontzertua, Milagrosan. Argazkian, Ozenki abesbatzako kideak kantuan.

izango du laguntzeko aukera, kantuan edo txaloka.

Txistua eta akordeoia, bihar Biharkoan Gabonetako beste zortzi pieza entzuteko okasioa izango da. Kasu honetan, Txistulari Bandak, akordeoilari baten laguntzarekin, interpretatuak, eta Patxi Apeztearen batutapean.

Kontzertu hau ere, Milagrosako kaperan izango da, eguerdiko 13:00ean hasita.

Kantu ezagunak izango dira; tartean, herrikoiak asko. Adibidez, *Gau erdian* edo *Ai! Hau gabaren*.

Kanturako aukera gehiago, datozen egunetan Gabonak izanik, hainbat kon-

tzertu eta emanaldi entzuteko aukera dago egun hauetan Hernanin.

Bereziki, kalean kantatzeko aukera izango da, Gabon gauean. Herriko eskoletako haurrak, eta elkarte eta abesbatzak Hernaniko kaleak girotuko dituzte, Olentzoren etorrera are gehiago alaitzeko. ||

**OZENKI ABESBATZA
ETA MUSIKA BANDA**

-Gaur, 19:30etan Milagrosan-

- Estalpe batean.
- Carol of the bells.
- Entzun Meltxor.
- Hator, hator.
- Haurtxoaren negarra.
- Elurra maramara.
- Gauerdian.
- The little drummer boy.
- Pat-a-pan.
- Sleep.
- Little christmas suite.
- A Festive Christmas Celebration.
- Gospel train.
- Birjiña maite.

TXISTULARI BANDA

-Bihar, 13:00ean Milagrosan-

- Minue.
- Sei doinu Xuberotar:
 - Prima eijerra.
 - Txori erresinola.
 - Atarratze jauregia.
 - Maitea; non zara.
 - Argizaria zerutik.
 - Zu zira.
- Vals con variaciones.
- Txistulari (Zortzikoa).
- Jingle Bell (Din, dan, don).
- Alborada Navideña II.
- Gau erdian (Gloria).
- Ai! Hau gabaren.

ZUNTZA DA AURTENGO GABONETAKO IZARRA

BENETAKO
20 MEGA
+ PREMIUM TBa
+ finko eta mugikorretarako deiak

Hilean
35,8€
soilik
ordainduta, urtebetez.

Alta eman
urtarrilaren **5a**
baino lehen

Logikaline
943 31 86 11

euskaltel
Banatzaile
ofiziala

2013/01/05a baino lehen Euskaltelen Zuntz Optikoan alta ematen dutenentzat balio du sustapen honek. %50eko deskontua 20 Meko DUCaren eta Premium Telebataren hileko kuartan, eta %48,7ko deskontua linearen kuartan, aktibatzen den egunetik hasi eta 12 hilabetez aplikatukoak. Zuntzean eta Banda Zabalean 12 hilabetez irauteko konpromisoa. Baita gure eskatzeagatik kargua: 15 € produktu eta bere gabeko hilekotasun bakoitzeko. Baita hartzen dituzten finkoetarako deiak (6.000 minutu) eta estatuko mugikorretarako deiak (60 minutu). Zuntz Optikoaren instalazio berrientzat soilik da dagoen alta. Deskontuzalea ez dago sartuta. Premium Zerbitzu Teknikoa doan lehen 3 hilabeteetan; legegarenetik aurrera, berriz, 3,5 € hileko. BEZ ez dago sartuta. Muga 125 ale.

2013KO UDAL AURREKONTUA: 30.099.483 EURO



Hirigintza eta Ingurumen arloan egingo da inbertsio haundiena (906.000 euro); Urumea eraikina bota, Portu eta Karabeleko proiektua egin eta kiroldegiko teilatua egingo dira.

Igo egin da udal aurrekontua, bereziki, inbertsioetara bideratua

Udala eta Ereñotzuko Udalarentzako aurrekontua zertxobait igo da, eta Ongintzarakoa berriz, jaitsi. Igoera nabarmena, inbertsioetara bideratutako aurrekontuak izan du, bereziki,

Hirigintza programetarako izango dena. Ostegunean onartu ziren 2013ko aurrekontuak, eta orain, 15 eguneko epea dago udaletxean aurrekontuak begiratu eta erreklamazioak egiteko.

2013KO udal aurrekontua aurtengoa baino zertxobait altuagoa izango da. 30.099.483 euro izango dira datorren urterako (aurten, 29.494.788 euro izan dira). Horietatik, Hernaniko Udalarentzako 24.693.386 euro izango dira. Ereñotzuko Udalerako, 324.427 euro. Eta Ongintzarako 7.578.868 euro.

Igoera nabarmena inbertsioetarako partidak izan du; datorren urtean 1.644.220 euro izango dira, aurten baino 911.947 euro gehiago. Bereziki, Hirigintza eta Ingurumen arlorako bideratuko dira inbertsio horiek. Besteak beste, Portu eta Karabel auzoen arteko hirigintza proiekturako (300.000 euro), kiroldegiko bigarren pistako teilatua egiteko (240.000 euro), Urumea Ikastetxeko eraikina botatzeko (106.000 euro) edota baratza ekologikoak egiteko (80.000).

Aurrekontua 15 egunez

egongo da publikoaren esku, udaletxean bertan, begiratu eta erreklamazioak egin ahal izateko.

Gastuei eutsi, eta zerga eta tasak igo

Luis Intxauspe alkateak Plenoan azaldutakoaren arabera, 2013ko aurrekontuak egiteko kontuan izan dute egungo egoera ekonomikoa. Horregatik, «gastuari eusteko ahalegina egin» izana aipatu zuen. «Gastuetan kontuan hartu ditugu egoera zailean dauden pertsonen laguntzeko programak, eta guretzako garrantzitsuak diren printzipio eta baloreak», azaldu zuen. Horien artean nabarmendu zituen, arlo-sozioekonomikoan herriko azterketa egiteko partida, lan-sustapenerako politika, Hernani jasangarriago baten aldeko apustua, eta auzoak berritze-ko egitasmoa.

Diru sarrera altuagoak, zerga sistema berriari esker

2012 urtean baino 604.696 euro gehiago izango ditu Udalak 2013an, neurri haundi batean, Diputazioak zergak biltzeko modua aldatu duelako («gehien daukatenek gehiago ordainduko dute»).

Hala ere, diru sarrera arruntak jaitsi egin direla azaldu zuen alkateak. Izan ere, ez baitago 2013rako aurreikusita 2012an Oronak Galarretan egindako obren-gatik jasotakoaren antzekorik, eta beraz, diru sarrerak txikiagoak dira.

Gastuak jaisteko ahalegina

Hainbat partidetan murriztu egin da gastua. Pertsonalera bideratutako gastuak, 11.950.954 eurotik 7.477.835 eurora jaitsi dira. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak ere jaitsi egin dira, 13.721.215 eurotik 9.929.716

eurora. Finantza gastuak berriz, 59.703 eurotik 57.107 eurora jaitsi dira, eta Kapital transferentziak ere antzeko mantendu dira.

Aldiz, igo egin dira Transferentzia arruntetarako gastuak, 1.575.594 eurotik 3.845.250 eurora. Era berean, bereziki igo da inbertsioetarako partida; 732.273 eurotik 1.644.220 eurora.

Inbertsioen aldeko apustua

Inbertsioetarako 911.947 euro gehiago izango dira 2013 urterako. Zatiarik haundiena Hirigintza eta Ingurumen arlorako bideratuko da.

Hortik diru gehien Hirigintza eta arkitektura lanetarako izango dira. Horien artean, ondorengoak egingo dira: Portu eta Karabel auzoen arteko hirigintza proiektua (300.000 euro), kiroldegiko bigarren pistako teilatua (240.000 euro), Urumea

Ikastetxeko eraikina bota (106.000 euro), baratza ekologikoak (80.000), ur hornidura eta banaketa lanak (103.000 euro), kaleko argikuntza (78.700 euro), Portu eta Elizatxo auzoen arteko lotura hobetu eta trenbide azpiko lurra berritu oinezkoen lehen-tasuna emateko (6.000 euro), Paradorean aparkalekuak egokitu (20.000 euro), Floridako trenbide azpiko pasoa semaforoa jarri (12.600 euro)...

Atez atekoa auzitan

Beste behin, aurrekontuen inguruko puntu polemikoena zabor biltzaile sistemaren ingurukoa izan zen. Oposizioko alderdi guztiek jaso zuten gai honen inguruko erreklamazioa emendakinetan.

EAJk adierazi zuen «Atez Ateko sistemak aurrekontuaren %6,41 hartzen duela, eta 5 eta 6garren kontenedoreak jartzea hobesten» duela.

Hamaikabaten hitzetan «interes partidistak daudela» salatu zuten.

PSE-EEK berriz, «Atez Ateko sistemaren kontra» dagoela azaldu zuten, «guztira duen kostua, 1.863.644 eurokoa delako».

Oposizioa kontra

2013ko aurrekontuak onartu baziren ere, oposizioak osoko emendakinak jarri zituen.

PSE-EETik Estefania Morcillok aipatu zuen «langabe-tuen egoera hobetzeko partiden falta sumatzen» zutela batetik, eta bestetik, «aurrekontuaren zatirik haundiena, jaitsi egin bada ere, Atez Ateko bilketa sistemara bideratzen dela».

EAJ-PNVko ordezkari Andoni Amonarraizen hitzetan, «diru-sarrera batzuk ez daude ziurtatuta, transferentzia arrunten gastua %2,4 igo da, eta asesore urbanistikoa ez da beharrezkoa, asesore juridikoa eta arkitektoa plantillan edukita». Bestalde, zabor bilketari dagokionez, defendatu zuen 5garren kontenedorearen sistemaren eraginkortasuna Atez Atekoarenaren antzeko dela, baina merkeagoa.

Azkenik, Hamaikabat alderditik Iñaki Barriok adierazi zuen «aurrekontuetan gastuak kontrolatzeko ahalegina postiboki baloratzen»

Hondakin bilketa sistemen arteko konparazioa

● Gastuak
-Hondakinen bilketa, tratamendu zerbitzua eta beste hainbat gastu:
Atez Ate: 1.304.963 - 4 edukiontzi: 500.000 - 5 edukiontzi: 600.000
-Organikoaren tratamenduaren kostea:
Atez Ate: 106.361 - 4 edukiontzi: 0 - 5 edukiontzi: 66.413
-Errefusaren gastua:
Atez Ate: 171.675 - 4 edukiontzi: 784.829 - 5 edukiontzi: 651.993
-San Markori aportazioa:
Atez Ate: 280.000 - 4 edukiontzi: 280.000 - 5 edukiontzi: 280.000
GUZTIRA:
Atez Ate: 1.863.000 - 4 edukiontzi: 1.564.829 - 5 edukiontzi: 1.598.406
● Sarrerak
-Hondakin bilketa eta tratamendu tasak:
Atez Ate: 846.452 - 4 edukiontzi: 846.452 - 5 edukiontzi: 846.452
-Birziklatzearen ondoriozko sarrerak:
Atez Ate: 275.000 - 4 edukiontzi: 0 - 5 edukiontzi: 0
GUZTIRA
Atez Ate: 1.121.452 - 4 edukiontzi: 86.452 - 5 edukiontzi: 846.452
● Sistemaren defizita:
Atez Ate: -741.548 4 edukiontzi: -718.377 5 edukiontzi: -751.954

zutela, baina «interes partidistak medio, partida batzuk ez direla ikutzen».

«Manipulazioa» salatu zuen Gobernu Taldeak

Gobernu Taldeak erantzun zien «datuen manipulazioarekin aspertuta» daudela, eta sistema bakoitzaren gastuen arteko konparazioa adierazten duen taula banatu zuen bertaratutako artean (hemen argitaratzen den bera).

Herrira mugimenduaren mozioa, onartua

Plenoaren amaieran beste gai bat ere aztertu zen: Herrira mugimenduak jarritako mozioa, hain zuzen.

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea, gaixo larriak aske uztea, giza eskubideak errespetatzea eta espetxe zigorraren luzapenarekin amaitzea eskatu zuten. Horretarako, urtarrilaren 12an Bilbon egingo den mani-

2013ko udal aurrekontuak -Datu orokorrak-

● Aurrekontu osoa:	30.099.483
Udala+Ongintza+Ereñotzu:	24.693.386+7.578.868+324.427
● Pertsonala:	7.477.835
● Ondasun arrunt eta zerbitzuak:	9.929.716
● Finantza gastuak:	57.107
● Transferentzia arruntak:	3.845.250
● Kapital transferentziak:	114.884
● Finantza aktiboak:	7
● Finantza pasiboak:	1.624.367
● Inbertsio errealak:	1.644.220
-Portu eta Karabel: 300.000 euro	
-Kiroldegiko bigarren pistako teilatua: 240.000 euro	
-Urumea Ikastetxeko eraikina bota: 106.000 euro	
-Baratza ekologikoak: 80.000	
-Ur hornidura eta banaketa lanak: 103.000 euro	
-Kaleko argikuntza: 78.700 euro	
-Portu eta Elizatxo auzoen arteko lotura hobetu eta trenbide azpiko lurra berriro oinezkoei lehentasuna emateko: 6.000 euro	
-Paradorean aparkalekuak egokitu: 20.000 euro	
-Floridako trenbide azpiko pasoa semaforoa jarri: 2.600 euro	

festaldiarekin bat egitea eskatu zuen mugimenduak.

Mozioren alde bozkatu zuen Udal Gobernuak, eta oposizioak berriz, abstentzioaren alde egin zuen.

Udal ordezkariak ere ez dute jasoko Gabonetako paga

Premiazko 2garren Plenoa egin zen segidan, Gabonetako paga ez ordaintzeko Rajoyren dekretuaren inguruan. Dekretu honek funtzionarioei baka-

rrik kentzen die paga, eta Hernaniko Udal zinegotzi guztiek aho batez erabaki zuten ordezkari politikoak ere berdin tratatzea legearen aurrean. Horrela, ordezkari politikoek ere ez dute jasoko paga.

Hala ere, Udal Gobernu Taldeak adierazi zuen saiatuko direla 2013ko udako paga urtarrilera aurreratzen, eta hil honi dagokion soldata arrunta lehenago ordaintzen. ||

gabonetako promozioa !! EXISTENTZIAK BUKATU ARTE

>> larunbata arratsaldetan ere irekita: 17:00 - 19:30

ibai mendi

Nafar kalea 23 - 943 33 37 24 - Hernani

ETOR ZAITEZ IKUSTERA GURE PROMOZIO GUZTIAK

on-line salmenta sartu eta ikusi !

www.ibaimendi.com



TERNUA
TXAMARRA SHELL TEC IMPERMEABLEA - TRANSPIRABLEA UNISEX 3 KOLORE

LEHEN: 215'00€
139'95€



TERNUA
GALZA ELASTIKOAK GIZONA / EMAKUMEA

LEHEN: 100'00€
59'95€



SALOMON
ZAPATILA-BOTA GORE TEX

LEHEN: 100'00€
79'95€

LEHEN: 140'00€
124'95€

LEHEN: 165'00€
119'95€



ibai mendi

TXALEKOA
LEHEN: 79'95€
49'95€



ENDIKA BARRENETXEA - ERREMONTEA - BINAKAKO TXAPELKETA

«Gaurkoan irabazteko aukera haundia dugu»

Amestutako tokian dago Endika Barrenetxea errementista hernaniarra. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Binakako Txapelketako finala jokatuko du gaur, Urrizarekin batera, Ezkurra eta Olazarren aurka. Hiru urte dira Barrenetxea IVak profesionaletan debutatu zuela, eta dagoeneko, lortu du buruan zuen erronka haundietako batera iristea. Finala irabaztea besterik ez du falta.



Barrenetxea IVa, finalerako material aukeraketaren aurretik.

2009KO abenduaren 19an debutatu zuen profesionaletan Endika Barrenetxea errementista hernaniarra. Hiru urteren buruan, amestutako mailarik gorenera iritsi dela aitortzen du, baina oraindik hobetzen jarraitzeko aukera duela azpimarratzen du.

Final haundia izango da gaurkoa. Aukerarik baduzuela uste duzu?

Baietz esango nuke, aukera haundia dugula irabazteko. Izan ere, partidu berdina jokatuta gaude, lehenago ere.

Urrizak eta biok Ezkurra eta Olazarren aurka jokatu genuen azkenekoan, beraiei komeni zitzaie frontoi batean aritu ginen, eta bi puntuko alde besterik ez ziguten atera. 40-38 galdu genuen. Gaurkoan, Galarretan jokatuta, gauza asko aldatu daiteke, eta bi puntuko diferentzia hori gure alde jarri daitekeela uste dut.

Ondo moldatu zara Urrizarekin?

Oso ondo akoplatu gara. Urrizak, kantxan gaudela, asko hitz egiten du, kontaktu haundia izaten dugu. Etengabe animoak ematen aritzen da, eta ondo edo gaizki egiten ari garena zer den esaten du.

Lasaitasun haundi transmititzen dit, eta ikusita, zer nolako kapazitatea eta maila dituen, asko errazten dit dena bere laguntzak.

«Binakako Txapelketan Ezkurraren aurka jokatu dudala esan ahal izatea gauza haundia da niretzat. Aitarekin eta orain arteko Barrenetxeatar guztiekin jokatua da, eta ikono bat da errementisten artean».

Profesionaletan debutatu duen azkenetarik errementista zarela kontuan izanda, nabaritzen duzu alde esperientzia haundiko errementistekin jokatzean?

Partiduetan nabaritzen da, bai. Beste tentsio batekin ateratzen naiz ni kantxara. Baina tentsio horrek bi aldetara jokatu dezake. Batetik, motibazioa haunditzen lagundu dezake, eta horrek, gauzak hobeto eginarazten dizkit. Bestetik ordea, urduriegi jarri eta akatsak eginarazten dizkit, batzuetan.

Hiru urte profesionaletan, eta etengabe hobetzen. Lehengo urteko errementista erregularrena izan zinen, eta aurten hainbat txapelketetako finalerdietara ere iritsi zara. Espero zenituen horrelako emaitzak, hasi eta horren denbora gutxira?

Zentzu horretan asko daukat eskertzeko, honaino iristen lagundu didaten guztiei. Be-

reziki, enpresari. Enpresak asko lagundu dit, aukerak emanez. Nire gaitasunean sinistu du, eta nik espero baino partidu zailagoak jokatzeke aukera eman dit. Banuela uste nuena baino gaitasun haundiagoa dudala sinisten duen seinale. Eta egia esan, uste dut emaitzek islatu egiten dutela etengabe hobetzen ari naizela. Baina oraindik asko dut hobetzeko, eta horretan segiko dut.

Behin honaino iritsita, zein duzu hurrengo erronka?

Ez dakit zer esan. Profesionaletan hasi aurretik, beti amestu izan nuen Binakako Txapelketa honetako finala jokatzea. Iristearekin irabazi dut, dagoeneko.

Gainera, zer eta, Binakako Txapelketa Ezkurraren aurka jokatu dudala esan ahal izatea gauza haundia da niretzat. Aitarekin eta orain arteko Barrenetxeatar guztiekin jokatuta da, eta ikono bat da errementisten artean.

Eta behin finalera iritsita, irabaztea onena! Zein izango da klabea? Aukeratutako materiala, agian?

Ikusiko dugu. Biontzako egokiena den pelota aukeratzen saiatu gara, beti ere, aurkariak kontuan hartuta. Gaztea izanda, mugituagoa, bizkorragoa izan nahiteke. Horregatik, pelota bizia aukeratu dugu. ■

PUBLIERREPORTAJEA



JAIONE KONGELATUAK -GABONETAN, AUKERA

«Prezioak mantendu edo jaitsi egin ditut, Gabonetarako»

Urteak daramatza Isabel Cascok Hernaniko bezeroei jaki kongelatu goxoak eskaintzen; 24 urte, hain zuzen ere.

Jaione Kongelatuak ezaguna da herrian, eta jabeak ere, ederki ezagutzen ditu bezeroak. Hori dela eta, aukera ederrak prestatu ditu Gabonetarako: «Urte osoan zehar saiatzen naiz prezio ona jartzen, baina Gabonetarako, ahal izanez gero negoziatu egiten ditut berriro, eta batzuetan, jaistea lortzen dut. Aurten, kokotxak merkeago jartzea lortu dut».

Gabonetako saski ederrak, enkarguz

Eguneroko jakiez gain, produktu bereziak ere izaten dira Jaione Kongelatuak dendan. Gabon hauetan adibidez, oparitarako ere aproposak diren saski ederrak prestatzen ditu, 20 eurotik gorako enkargua eginez gero.

Denetik sartu daiteke saskian: iberikoak, magreta, foie, produktu freskoak... Edariak ere baditu, Luis Cañas ardoak edota txanpaina eta cava.

Delicatessen kongelatuak eta freskoak, bertakoak denak

Arraina oso ondo saltzen da Gabonetan, Isabel Cascoren esanetan: «zigalak, langostinoak, kokotxak, olagarroa... Arrainetan aukera haundia eskaintzen dut».


Horiez gain ordea, baditu produktu bereziak ere; delicatessen kongelatuak eta freskoak. Ametzoy markako krocketak, langostinoz betetako poltxatxoak, bieiraz edo foie-az betetako hojaldrea...

Produktu guztiak, ahal duen neurrian, bertakoak direla azpimarratzen du Cascok. «Naturalak, eta kontserbanterik gabeak». Arraina, Kantabriakoa batez ere, eta gainontzeko produktuak Euskal Herrikoak, edo gehienez ere, Logroñoakoak. «Txangurro beteak adibidez, Irungo Bentan eginak dira».

Leku aldaketarekin, bezeroengandik gertuago

Jaione Kongelatuak dendak 24 urte daramatza udaletxe atzean. Laster odea, lokala lekuz aldatuko du Isabel Cascok. Kale Nagusiko 40garren zenbakiko lokalean irekiko du dendan, Errege egunaren ondoren, gutxi gora-behera.

«Bezeroengandik gertuago egongo naiz horrela. Errazagoa egingo zaie eguneroko erosketetan ari direla, dendara gerturatzea». ●

IGERIKETA - HERNANIKO XVI. SARIA

Itsaso Tolosa hernaniarra ere gaur Hernanin izango da seguruenera.

180 igerilari gaur kiroldegian, Hernani Sariaren bila

Goizeko 09:30etatik aurrera hasiko dira txapelketak eta guztira zortzi igeriketa talde izango dira, eta goi mailako igerilariak.

IZANGO da espektakulua eta zipriztina gaur Hernaniko kiroldegiko piszinaan, 180 igerilari gipuzkoarrek parte hartuko baitute, Hernani Sariaren bila. Urtean egun gutxitan izaten da aukera hainbeste igerilari on batera ikusteko, eta gaur goizean goizetik zita jarria dago, igeri-zale eta ez

Hauexek dira parte hartuko duten zortzi taldeak:
Hernani, Buruntzaldea, Ordizia, Tolosaldea, Bergara, Fortuna, Atletico San Sebastian eta Zarautz.

hain zaleentzako: 09:30etatik aurrera, kiroldegian.

Aurten 16garren aldiz antolatu dute Hernaniko Sariketa, eta bertara etorriko dira Hernaniko taldeaz gain: Buruntzaldea, Ordizia, Tolosaldea, Bergara, Fortuna, Atletico San Sebastian eta Zarautz taldeak. ||

◆ FUTBOLA

Realeko nesken taldea, gaur Zubipen

Goi mailako futbola ikusi nahi duenak, gaur Zubipen du aukera, Realeko nesken talde nagusia bertan izango baita. 10:00etatik aurrera, bi orduz entrenamendu berezia egingo dute bertan. ||

Real Union-Hernani, bihar Irunen

Erregionalen Ohorezko mailan, Hernanik bihar jokatu du Real Unionen kontra, Irunen, 16:00etatik aurrera. ||

◆ ERRUGBIA

Santboiana-Hernani, bihar Landaren

Partidu garrantzitsua du bihar Hernanik Landaren, 12:00etatik aurrera. Santboianaren kontra aukerak baditu Hernanik puntuak lortzeko eta hartaraxe aterako dira Patrick Polidoriren mutilak. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I URTEBETETZEA

† Maria Santa Kruz Oyarzabal

ANDREA
(Akola Baserrikoa)
(NIKOLAS SUSPERREGIREN ALARGUNA)

2011ko abenduaren 28an hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Seme-alabak: Kandi eta Jose Luis (+), Iñaxi eta Axenxio, Mari Karmen eta Anselmo, Joxe eta Isabel; bilobak: Andoni eta Itxaso, Nicolas eta Gurutze, Anselmo eta Bakartxo, Joxan, Jesus eta Elena eta Jon; birlobak: Julen, Lore, Maitane, Joseba, Ane eta Aimar; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoiitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **BIHAR, IGANDEA, goizeko 10:00etan, Ereñotzuko ANTONIO DEUNAREN** parroki elizan egingo Urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Ereñotzu, 14 - 3 **Hernanin, 2012ko abenduaren 22an**



XIII. eta VIII. URTEURRENA

Xixili Jauregi Iraola

1999ko abenduaren 22an hil zen, 69 urterekin.

Antonio Odriozola Oiarzabal

2005eko urtarrilaren 31n hil zen, 88 urterekin.

NAHIZ ETA URRUN JOAN
MUNDU HONETATIK
EZ DUZUE ALDE EGIN
GURE BIHOTZETIK.

Hernanin, 2012ko abenduaren 22an



KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

ERRUGBIA				SASKIBALOIA			
Ohorezko maila	Santboiana-Hernani	Landaren	Bihar 12:00	Seniorak	Tekken/Lasarte-Hernani - Take Orbea	Kirokdegian	Bihar 12:00
Senior B	Arasate-Hernani	Arasaten	Bihar 12:00	Jubenil. 2. urtea	Mondragon Unib. - Hernani KE	Arasaten	Bihar 18:00
FUTBOLA				Jubenil. 1go urtea	Internacional-Hernani KE	Nonsen	Gaur 12:00
Erregional Oh. N.	Real Union-Hernani	Irunen	Bihar 16:00	Kadete. 2. urtea	Take Gorri-Hernani KE	Tolosan	Gaur 10:30
Erregional 1go Maila	Hernani-Zumalako	Zubipen	Bihar 16:00	Kadete. 1go urtea	Zubi-Hernani KE	Antonianosten	Gaur 16:00
Ohorezko jubentzia	Hernani-Allara	Zubipen	Gaur 18:00	Infant. Muti. 2. urtea	Hernani KE - Zubiri Maritxo	Kirokdegian	Gaur 11:30
Kadeteak 1go maila	Uniatz-Hernani	Uniatzan	Gaur 11:45	Infant. Mask. 2. urtea	Hernani KE - Astigarraga La Salle	Kirokdegian	Gaur 10:00
Infantil Oh. N.	Oarsoan-Hernani	Oarsoan	Bihar 10:30	Infant. Mask. 1go urtea	Hernani KE - LZ Gauri	Kirokdegian	Gaur 10:00
Infantil 1go maila	Hernani-Idkorsabal	Zubipen	Bihar 12:00				
Akrobat. 2. urtea	Hernani-Koetbas	Zubipen	Bihar 13:00				
ALBORNAK	GABON TORNEJA	Zubipen	Gaur 11:00				

M^a KRUZ
ERRAZKIN URDANGARIN
Ez adiorik, gero arte baizik

II. urteurrenako meza, bihar, igandea, eguerdiko 12:00etan San Joan Bataiatzailearen parroki elizan. Aldez aurretik mila

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20



www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK ● Eguez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● Gauez: Etxebeste Elkano 9 - 943 552087

EGURALDIA
GAUR Hego-haizeak joko du gaur, leun-leun, eta giro eguzkitsua nagusi izango dugu. Laino xare batzuk ibiliko dira, baina gutxi. Tenperatura gora. Min.9° / Max.20°
BIHAR Minimoak hotz eta maximoak bero, bihar. Goizeko laino pixarrak desagertu eta eguzkiak argitu eta berotuko ditu bazterrak. Min.7° / Max.23° (euskalmet)



OSTALARITZA

Euskera klaseak, taberna edo sagardotegian lan egiteko

Informazio praktikoa emango da, ostalaritzan lan egin behar duen jendearentzat. Kurtsoa urtarrilean hasiko da, eta 14 saio egingo dira.

«ZER hartuko duzue?», edo «gaur jateko dauzkagu: txoria, bakailao tortila eta txuleta»... Txotx denboraldia bada, eta ostalaritzan lan egiteko euskera jakitea ez da gaizki etorriko. Horrexegatik, euskerazko klaseak emango zaizkie, taberna, jatetxe edo sagardotegietan lan egin nahi dutenei. Ikuspuntu erabat praktikoa dauka ikastaroak, lanean behar izaten diren esaldiak ikasi, eta hitz egiteko lotsa galtzeko.

Buruntzaldeko Udalek antolatatu dute ikastaroa, Banaiz Bagara eta Emun elkarteekin elkarlanean.

Urtarrilaren 8an informatzeko bilera egingo dute Biterin, arratsaldeko 18:00etan. Urtarrilean hasiko dira kurtsoak, eta 14 saio izango dira. Apuntatzeko, deitu: 943 00 80 33 edo 645 733 818. Emaillez: ninaizgugara@gmail.com.



Klase praktikoa izango dira, tabernetako benetako egoerak...

Erabat praktikoa

Ikuspuntu praktikoa erekin egin dute programa, ostalaritzako langile batek egunero behar dituen esaldiak eta abar ikasteko. Benetako taberna edo jatetxetan emango dira klaseak, egi-

tazko egoerak zein izan daitezkeen ikusteko. Lotsa edo ohitura falta superatzeko ariketak egingo dira, eta kontuan hartuko dira ostalaritzan era guztietako establezimenduak daudela: taberna, sagardotegi... ||



Iñaki Ochoa de Olza zena, Himalayista famatua.

❖ ZINEA

‘Pura Vida’, mendia eta pertsona, parez pare

Iñaki Ochoa de Olza mendizalea Himalaya mendikatean hil zen, jaitsi ezinda geratu baitzen, 7.000 metroan. Hainbat eta hainbat mendizalek beren helburuak utzi eta Ochoa de Olza bizitza salbatzeko saiakera egin zuten. Egun gogorak eta hunkigarriak izan ziren mendizale guztientzat. *Pura Vida* pelikulak kontatzen du zein zen Ochoa de Olza, eta azken egun haietan bizitutakoa. Donostiako Zinemaldiko Serbitzu saria irabazi zuen pelikula honek, Pablo Iraburu eta Migueltxo Molinak zuzendutakoak. Biterin izango da, gaur 19:30etan eta 22:30etan, eta bihar, 19:30etan (azpituak euskeraz). ||

Saxanak badaki, ama sorgina duela...

Mundu majikoa, opari eta gabon giroa, abenturazko pelikula batean. Saxanak deskubrituko du, bere oparien bidez, ama sorgina duela... *Saxana y el libro mágico* pelikula botako dute Biterin, gaur eta bihar, 16:30etan. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisu bila gabiltza, errentan, Hernanin edo inguruan. 3 logela. Altzaririk gabe hobe. Deitu: 943 332 671

Pertsona baten bila nabil etxea konpartitzeko. Deitu: 677 393 597

Euskara irakaslea, logopedian graduatutako neska, eskola errefortzuan aritzeko prest. Deitu: 635 706 241

2 kotxerentzat garajea alokatzen dut. Garcia Goldarazen. Modu onean. Deitu: 686 246 770

Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri.

Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com

Enara Goikoetxea. Sendabide energetikoa, Maestra Reiki, Kristaloterapia, Obsidiana harrien masajea beroa, Ayurveda Masajea, Bach loreak, Metamorfikoa, Argi Kanalak. Tel: 649700762.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

cenor BALANTXA
ELEKTROGAILUAK

Behar dituzun elektrogailu guztiak ditugu!!

NAGUSIA, 17
943 33 40 22

Errege egunera arte larunbat arratsaldeetan

ZABALIK Euskeran on!!

Kapsuletako kafe-makinetan ESKAINTZA ZABALA DAUKAGU